



INFORMAZIO ORRIA

Itsasontzi erabilien eskualdaketa partikularren artean

Nork aurkeztu behar du?

Erosleak, itsasontziaren erosketa Gipuzkoan inskribatzen denean.

Zenbat egun dituzu aitortpena aurkezteko?

30 lanegun, itsasontzia erosi ondorengo egunetik aurrera.

Zein pauso egin behar dira?

1.- Bildu honako agiriak:

- ❖ **60T eredia**, hemen eskura dezakezuna:
 - estankoetan.
 - interneten: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/zergak/eredua/60t>
- ❖ **60T ereduaren eranskina** (*eroslea edo saltzailea bat baino gehiago direnean bakarrik*). Eredua eskuragarri dagoen toki berdinetan lortu daiteke.
- ❖ **Salerosketa kontratuaren fotokopia eta jatorrizko agiria**
- ❖ **Itsasontziaren eta bere motorraren informazioa jasotzen duen dokumentazioaren fotokopia.** Agiri hauetako bat izan daiteke:
 - Nabigagarritasun agiriaren fotokopia
 - Rol-aren fotokopia, edo
 - Idazpen orriaren edo Balorazio Agiriaren fotokopia

2.- Bete 60T eredia jarraian adierazten den eran:

- ❖ **Subjektu pasiboa**: erosten duenaren datuak.
- ❖ **Eskualdatzailea**: saltzen duenaren datuak.
- ❖ **Oinarri ezargarria**: ordaindu den zenbatekoa.
<http://www7.gipuzkoa.net/ogasunaNet/vehiculos/default.asp> , eta zerga bulegoetan eskuragarri dago Aldundiak onartutako foru agindua, saltzen diren motorrei eta itsasontziei beren ezaugarrien eta antzintasunaren arabera ematen zaien gutxieneko balorazioa finkatzen duena.
- ❖ **Zerga tasa**: %4
- ❖ **Subjektu pasiboaren edo ordezkariaren sinadura**

3.- Eraman 60T eredia banketxe edo aurrezki kutxa batera eta egin bertan ordainketa

4.- Ekarri agiri guztiak gure bulegoetara
